

HAURREN ADIERAZPENA: "GURE ESKUBIDEEN DEFENTSAN"

NAFARROAKO PARLAMENTUA

2014ko azaroaren 20a

Kaixo, egun on hemen zaudeten guztioi

Hemen bildu gara Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 25. urtemuga dela ospatzeko ez ezik, ibiltzeko daukagun bide luzearen aldarrikapena egiteko ere. Irudi dakiguke asko egin dugula aurrera, baina tamalez lehenengo urratsak egiten hasi baizik ez dugu egin haur guztiei agiri honetan ezarritako oinarrizko eta funtsezko eskubideak emateko.

Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioa 1989ko azaroaren 20an onetsi zen. Espainiak berretsi egin zuen, eta 1990eko irailaren 2an hartu zuen indarra bertan. Geroztik, aurrerapen handiak egin dira haurren ongizatean eta haien eskubideen aplikazioan. Konbentzioa lagungarri gertatu da haurtzaroaren alderdi askotan lorpen eta aldaketa handiak erdiesteko.

Lortu dugu haurrek honakoetarako eskubidea izan dezatela: berdintasuna; babes berezia; izena eta nazionalitatea, jaiotzen diren unetik; elikadura eta arreta mediko egokia; hezkuntza; gurasoen maitasuna; laguntza jasotzen lehenengoak izatea. Halaber, horien antzeko beste eskubide asko lortu ditu haurrak. Garapen bidean dauden herrialdeetako haurren eskolatzea hobetzea lortu da. Azken urteetako beste lorpen bat izan da haurren desnutrizioa gutxitzea. Boluntarioei eta emaileei esker, hobekuntza asko lortu dira; baina hobekuntza horiek, tamalez, ez dira nahikoak gaur egungo arazo ugariak desagerrarazteko. Lorpen horiek guztiak gorabehera, egiteko gauza ugari gelditzen da oraindik ere.

Herrialde pobreetako haurrek gosez eta gaixotasunen ondorioz hiltzen jarraitzen dute; tratu txarrak jasotzen dituzten haurrak badaude, eta beste batzuk, berriz, eskupekoen mende bizi dira eta antzeko egoerak pairatzen dituzte. 17.000 haur hiltzen dira egunero saihesteko modukoak diren arrazoiaren ondorioz, eta horien herena gosez hiltzen dira. Afrikako haurren % 71k deshidratazioa pairatzen dute, elikadura txarraren ondorioz edo are ez jatearen ondorioz ere. Baina ez da hain urrun joan behar haurren eskubideen aurkakoak diren egoerak identifikatzeko: gure eguneroko bizitzan ere aurki ditzakegu. Unicefen azken txostenaren arabera, Espainia da Europar Batasunean eta Ekonomiako Lankidetzan eta Garapenerako Antolakundean (ELGA) haur pobrezia tasarik handiena duen hirugarren herrialdea, eta pobrezia arriskua jada 3 milioi haurrek dute –duela bost urte baino 800.000 haur gehiagok–. Datu hotzez harago, Espainiako ehunka adingaberen eguneroko drama dago.

Parlamentari jaun-andreok, ez al zaizue iruditzen zeozer huts egiten ari dela oinarrizko eskubide horiek pribilegio gisa ikusten ditugunean? Adibidez, hezkuntzarako eskubidea, elikadurarako eskubidea edo osasun egokirako eskubidea, besteak beste.

Zuek asko egin dezakezue. Zuen esku dago legeak aldatzea, aurrekontuak aldatzea, zuzenagoak izan daitezen eta premiarik handiena dutenei on egin diezaieten.

Gustatuko litzaiguke haurren eskubideak, giza eskubideak eta konstituzioa bezalako agiriak zuen erreferentzia-gunea izatea.

Hitzarmen bat eskatzen dugu haur eta nerabeei kalitatezko hezkuntza bat bermatzeko, arreta berezia eskainiz desgaitasun edo zailtasunen bat dutenei.

Hitzarmen bat eskatzen dugu laguntza ekonomikoak emateko beren egoera kritikoa dela-eta etxebizitzarik gabe geratu diren familiei.

Hitzarmen bat eskatzen dugu haur guztiek elikadura osasungarri eta orekatua jasoko dutela bermatzeko.

Hitzarmen bat eskatzen dugu guztiek osasun laguntza egokia jaso dezaten.

Eskerrak eman nahi dizkiogu UNICEFi eta Parlamentuari herritar guztiok ordezkatzeko gaituzten tokian guri entzuteko eman diguten aukerarengatik.

Etorkizun hobe baten esperantzan agurtzen zaituztegu. Orain gauza bat baizik ez zaigu gelditzen esateko: jarduteko unea da.

IRUÑEKO SANTA CATALINA-SANTÍSIMO SACRAMENTO IKASTETXEKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO 4. MAILAKO, LANBIDE HEZIKETAKO ETA HASIERAKO
LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAKO IKASLEAK